



**OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA**

Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntzako  
Saiburuordetza  
*Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazio*  
*Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO**

Viceconsejería de Calidad, Investigación  
e Innovación Sanitaria  
*Dirección de Gestión del Conocimiento y  
Evaluación*

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
OSPITALEETAKO ALTEN ERREGISTROAREN  
TXOSTENA**

**2010**

---

*2011ko urria*

**Manuel Errezola Saizar  
Erregistroen eta Informazio Sanitarioaren Zerbitzua**

## SARRERA

Txosten honetan, 2010eko Ospitaleetako Alten Erregistroan (OAE) aitortutako datuak aztertzen dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ospitaleetan artatutako kasuei buruzko informazioa eskaintzen da. Datuok azaroaren 3ko 303/1992 Dekretu bidez sortutako Gutxieneko Oinarrizko Datu Bildumatik (GODB) hartu dira.

EAEko OAEa administrazio-erregistro bat da, eta aldagai kliniko, demografiko eta administratibo batzuk biltzen ditu. Aldagai horiek osasun zentro publiko zein pribatu guztietako —baina ez ospitale psikiatrikoak— ospitalizazio-gertakariak jasotzen dituzte.

## MATERIALA ETA METODOAK

2010ean, EAEko ospitale publiko zein pribatuetako paziente guztien altak sartzen dira. Analisiarako unitateak ospitaleratze-gertakariak dira.

Bi talde handitan sailkatu da arreta-mota: *Ohiko ospitalizazioa*: Egun bateko edo gehiagoko egonaldiko ospitaleratze guztiak sartzen dira, baita egun bat baino gutxiagoko egonaldiko ospitaleratze urgenteak ere (hura artatzeak altako txostena sortu badu). Eta *programatutako prozesu ambulatorioak*: programatutako ospitaleratzeak sartzen dira, baina, egonaldia zero izan dutenak.

Aztertzeko aldagaiak Erregistroa sortzeko Dekretuan jasotakoak eta azterketa hori garatu duen Prozedura-eskuliburuan jasotakoak dira. Artatutako gaixoei buruzko oinarrizko datuez gain (sexua, adina, bizi den lurralde historikoa, ospitalea, ospitaleratze-mota, alta-mota, alta-zerbitzua, etab.), beste bi adierazle garrantzitsu ere aztertzen dira:

1. *Batez besteko egonaldia*. Egonaldi-kopuruaren eta alta-kopuruaren arteko zatidura eginda ateratzen da.
2. *Erabilera-tasa*. Mazitasun-tasa ere deitzen zaio eta 1.000 biztanleko urteko alta kopurura da. Izendatzailatzat 2010erako estimatutako EAEko eta lurralde historikoetako populazioaren datu guztiak erabili dira, Eustateko 2001eko erroldatik eta 2006ko biztanleen erroldatik estrapolazio lineala eginda.

Datuen kalitatea zeharka neurtzen da, aldagi klinikoen betetze-mailaren adierazle bitartez: diagnostikoen batez bestekoa, diagnostiko nagusirik gabeko altak eta prozeduren batez bestekoa, baita administrazio-aldagaien betetze-maila ere.

Datuen analisia deskriptiboa da, eta oinarrizko administrazio-aldagaiei eta aldagai kliniko hauei egiten die erreferentzia: diagnostiko nagusia eta prozeduren lehenengo eremua. Diagnostiko ohikoenen taulak ateratzeko, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapeneko (9. berrikuspena, Aldaketa Klinikoa (GNS-9-AK)) diagnostiko nagusien hiru lehenengo digituak erabili dira; eta prozedura ohikoenen taulak ateratzeko, berriz, lehenengo lau digituak, ohiko ospitalizazioen kasuan, eta lehenengo bi digituak, kirurgia handi ambulatorioen kasuan.

Aldagaien bat betetzeko zeukaten alta-orriak baztertu egin dira aldagai horri zegokion analisia egiterakoan. Hainbat zentrotan, "etxeko ospitalizazioko" alta-

motak kodetzean izandako arazoak direla eta, kasu guztiak "etxeko" altatzat hartu dira.

Txostenean, xehetasun osoz aztertu dira EAEko ohiko ospitalizazio kasuak, eta programatutako prozesu ambulatorioei dagokienez, berriz, kirurgia handi ambulatorioko kasuak, bakarrik, aztertu dira (kasu horien %67,8 dira), izan ere, gainerako prozesuak aitortzea (kirurgia txikia, eguneko ospitale medikoa, etab.), erabat sendotu gabe baitago, oraindik, EAEn. Prozesu ambulatorioak sailkatzeko, prozedura-multzokatzaile bat erabili da, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzak landutakoa. Bi kasuetan, EAEn bizi direnen altak hartu dira azterketaren oinarritzat.

1. eranskinean, aitortutako alta guztiak daude xehatuta, ospitale-motaren eta jasotako asistentzia-motaren arabera.

## **EMAITZAK**

### **1. Datu orokorrak**

2010ean, EAEko ospitale publiko nahiz pribatuetan aitortutako alta guztiak 328.507 izan dira, hots, 2009an baino %0,8 gehiago. Alabaina, ohiko ospitalizazio-kopurua %0,6 jaitsi da.

1. taulan ikusten den moduan, Osakidetzako akutuen ospitaleetakoak eta akutuen ospitale pribatuetakoak dira altarik gehienak, % 71,6 eta % 25,2, hurrenez hurren.

Alta guztien %97,4a EAEn bizi diren pertsonen dagokie (2. taula).

EAEn bizi direnen ohiko ospitalizazioei erreparatuz gero, 3. taulan daude jasota diagnostikoen batez bestekoa eta prozeduren batez bestekoa, ospitale-motaren eta ospitale zehatzaren arabera. Diagnostikoen batez bestekoari dagokionez, handiagoa da akutuen ospitale publiko gehienetan, akutuen ospitale pribatuetan baino; egonaldi ertain-luzeko ospitaleetan, aldiz, modu heterogeneoagoan banatzen da. 32 kasutan (2, ospitale publiko baten; eta 30, bi ospitale pribatutan), ez da diagnostiko nagusia kodetu, eta horrek alta horien 10.000ko 1,35 esan nahi du.

Ohiko ospitalizazioko kasuen %48,8k prozedura kirurgiko eta obstetrikoren bat dute; prozedura horien batez bestekoari dagokionez, badago halako heterogeneotasun bat ospitaleen artean, nahiz eta prozedura horien batez bestekoa berdina izan akutuen ospitale publiko eta pribatuk batera hartuta.

Oro har, prozedura ez kirurgikoak oso gutxi aitortu direla ikusten da (pribatuak aitorten hori egitetik salbuetsita daude).

### **2. Akutuen ospitaleak**

4. taulan adinaren eta egondaldiaren batez bestekoa datoz xehatuta, ohiko ospitalizazioko altai dagokienez. Ikusten den moduan, batez besteko adina antzekoa da akutuen ospitale publiko nahiz pribatuetan, baina batez bestekoa egonaldia 2,4 egun gehiagokoa da ospitale publikoetan (6,5 publikoetan, 4,1 pribatuetan). 2009arekin alderatuz gero, egonaldia 0,2 egunetan gutxitu dela ikusten da (hots, %3ko jaitsiera) Osakidetzako akutuen ospitaleetan, oro har.

Ospitaleratze-motari dagokionez, 2009an bezala, akutuen ospitale publikoetako ospitaleratzeen % 71 urgentea da; akutuen ospitale pribatuetan, ordea, ospitaleratzeen % 77 programatutakoa da (5. taula).

Alta-motari dagokionez, akutuen ospitale publikoetan, alden % 93tan pazientea etxera bidali da; ospitale pribatuetan, berriz, alden % 96 kasutan bidali da etxera (kategoria horretan, etxeko ospitalizazioko altak ere sartzen dira). Heriotza-tasa %3,4koa izan da ospitale publikoetan, eta %2,1koa ospitale pribatuetan, zentro horietan artatutako kasuak konplexuago izateari lotuta. Gainerako destinoak 6. taulan xehatu dira.

Alta-zerbitzuari dagokionez, alta gehien emandako zerbitzuak obstetrizia-ginekologia, traumatologia, barne-medikuntza eta kirurgia orokorra dira. Termino erlatiboetan hitz eginez, akutuen ospitale publikoetan presentzia handiagoa dute obstetrizia-ginekologiako, kardiologiako, pneumonologiako eta digestiboko espezialitateek; akutuen ospitale pribatuetan, aldiz, traumatologia eta kirurgia orokorra dira nagusi (7. taula).

8. taulak adin- eta sexu-taldean arabera banaketa azaltzen du. Gizonezkoetan, ospitaleratze gehienak 60tik 74ra bitarteko adin-tartean izaten direla ikusten da; emakumeetan, berriz, bi adin-tarte dira nagusi: 30-44 artekoa eta 75-89 artekoa.

9a eta 9b tauletan, batez besteko adinaren banaketa, berriro ospitaleratzeko arrazoia (alta kopurua, pertsonako) eta erabilpen-tasa azaltzen dira, 1.000 biztanleko, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera banatuta, ospitale publiko eta pribatuetan, hurrenez hurren. Ospitale publikoetan, pertsonako alta kopurua eta batez besteko adina handiagoak dira gizonezkoetan, emakumezkoetan baino; izan ere, emakume gazteak, askotan, erditzeko ospitaleratzeko dituzte, eta oso gutxitan gertatzen da bigarren aldiz ospitalizatu beharra. Bestalde, pertsonako alta kopurua handiagoa da ospitale publikoetan, pribatuetan baino, artatutako kasuak konplexuagoak izaterari lotuta. Azkenik, erabilera-tasak lurralde bakoitzeko ospitale publiko eta pribatuetako erabilera-maila azaltzen digu. Nabarmena da Bizkaian baxuagoa izatea akutuen ospitale publikoetako erabilera-tasa (77,2) bi sexuetan, Araban eta Gipuzkoan (99,7 eta 89,9, hurrenez hurren) baino askoz txikiago; bestalde egoera bera ikusten da Araban, akutuen ospitale pribatuetan (10,6), Gipuzkoa eta Bizkaiarekiko (25,2 eta 20,2, hurrenez hurren).

10. taulan, altak diagnostiko-taldearen eta sexuaren arabera azaltzen dira. Bi sexuetan, guztira, maizen ematen diren bi diagnostiko-taldeak zirkulazio-aparatuko eta digestio-aparatuko gaixotasunak dira. Termino erlatiboetan hitz eginda, gizonezkoetan, maizago ikusten dira zirkulazio-aparatuko (%16,4), digestio-aparatuko (%15,1) eta arnas aparatuko (%12) gaixotasunak; emakumezkoetan, berriz, nabarmentzen dena haurdunaldi, erditze eta erdiberriaroko konplikazioen multzoa da (erditze normala sartuta) %20,6rekin, eta distantzia batera daude zirkulazio-aparatuko gaixotasunak (%11,2) eta digestio-aparatuak (%10,6). V kodeak (001-999 diagnostiko-kategorian sailkatu ezin diren arazo edo zaintza jakin batzuk sailkatzeko erabiltzen direnak) asitentzia-mota horietako alta guztien %3,0 izan dira.

Diagnostiko-taldearen eta lurralde historikoen arabera altei dagokienez (11. taula), termino erlatiboetan, eta 2009an bezalaxe, alde handienak neoplasietan ikusten dira: Bizkaian maizago ematen dira (%10,6) Araban (%8,7) eta Gipuzkoan baino (%9). Gertakari horrek analisisian sakontzea komeni dela adierazten du.

12. taulan, akutuen ospitale publikoetako ohiko ospitalizazioko diagnostikorik ohikoenak azaltzen dira, sexuaren arabera. Bihotz-gutxiegitasuna eta, ondoren, kronologikoki asko aurreratutako haurdunaldia eta kolelitiasia dira ohiko ospitalizazioen hiru kausa nagusiak; batez besteko egonaldirik luzeena, berriz, femur-lepoko hausturari dagokio (12,3 egun), atzetik, "zenbait prozedura espezifikoren berezko konplikazioak" (11,4) eta osteoartrosiak jarraitzen dietela (8,2).

13. taulan, datu horiek berak agertzen dira akutuen ospitale pribatuentzako. Kasu horretan, belauneko barne-trastornoa, osteoartrosia eta iztai-etena dira ospitaleratzeko hiru kausa ohikoenak; batez besteko egondaldi luzeena "ustezko gaixotasunak behatu eta ebaluatzea"ri dagokio (8,5 egun), eta horren atzeik, osteoartrosia (7,0) eta bularreko neoplasia gaiztoa (5,5) datoz.

14. taulan, akutuen ospitale publikoetakoei dagozkien ohiko ospitalizazioko 25 prozedura ohikoenak jasotzen dira, sexuaren arabera. Bi prozedura ohikoenak, emakumeetan, "eskuz lagundutako beste erditze bat" eta beheko zerbixeko zesarea dira, eta gizonezkoetan, berriz, koronarioetako angioplastia eta " uretran zehar egindako maskuriko lesioa edo ehunen beste eszisio edota suntsitze bat". Egonaldirik luzeenak aldakaren zati bat ordezteagatik (13,1 eun) izan dira, eta ondoren, femur-hausturaren murrizte itxia eta irekiagatik (13,0 eta 12,6, hurrenez hurren).

15. taulan, datu horiek berak agertzen dira akutuen ospitale pribatuentzako. Kasu horietan, bi prozedura ohikoenak, gizonezkoetan, belauneko artroskopia eta koronarioetako angioplastia dira, eta emakumezkoetan, berriz, "eskuz lagundutako beste erditze bat" eta belauna erabat ordezkatea. Ospitale publikoetako datuak ospitale pribatuetakoekin konparatzen badira, desberdintasun garrantzitsuak ikusten dira batez besteko egonaldietan, prozedura jakin batzuetan (koronarioetako angioplastia, belauna erabat ordezte, aldaka erabat ordezte,...). Gertakari horrek analisisian sakontzea komeni dela erakusten du.

16. taulan, kirurgia handi anbulatorioko altak eta batez besteko adina xehatzen ditu, ospitale-motaren eta ospitalearen arabera; ikusten denez, batez besteko adina handiagoa da akutuen ospitale publikoetan, pribatuekin konparatuz (60,7 publikoetan, 56,6 pribatuetan).

17. taulan kirurgia handi anbulatorioko 25 prozedura ohikoenak jasotzen dira, sexuaren arabera, akutuen ospitale publikoetan, kirurgia-prozedura kirurgikoen lehen eremuko lehenengo bi digituak erabilia. Prozedurarik ohikoenak, eta diferentzia handiarekin gainera, bi sexuetan, "kristalinoko ebakuntzak" dira; eta urrunetik jarraitzen die "erretinako, koroideetako, gorputz beirakarako eta atzeko ganberako ebakuntzak" gizonezkoetan, eta "uteroko eta esukarri-egituretako beste ebakuntza batzuk" emakumezkoetan.

18. taulan, datu horiek berak agertzen dira akutuen ospitale pribatuentzako. Kasu horetan ere, "kristalinoko ebakuntzak" dira ohikoenak, bai gizonezkoetan, bai emakumezkoetan; baina, termino eraltiboetan hitz eginez, badira nabarmentzen diren beste bi prozedura: "artikulazio-egituren ebaketa eta eszisioa" gizonezkoetan, eta "hodien ebaketa, eszisio eta oklusioa", emakumezkoetan.

### 3. Egonaldi ertain-luzeko ospitaleak

19. taulan datoz xehatuta era horretako ospitaleetako alden batez besteko adina eta egonaldia, ohiko ospitalizazioetan. Ikusten den moduan, batez besteko adina antzekoa da ospitale publiko nahiz pribatuetan, baina, batez besteko egonaldiak oso aldakorra izaten jarraitzen du. 2009arekin alderatzen badugu, nabarmena da Arabaa klinikako (267 izatetik 109 izatera) eta Amarako (29 izatetik 19 izatera) batez besteko egonaldiaren beherakada.

20. taulak adin-taldearen eta sexuaren arabera banaketa azaltzen du. 60tik 89rako adin-tartean gertatzen dira kasuen ia %80, bai gizonezkoetan, bai emakumezkoetan; ostera, kasuen %8 gizonezkoetan eta kasuen %19 emakumezkoetan, 90 urtetik gorakoetan gertatzen dira.

Ospitaleratze-moduari dagokionez, aldakortasun handia dago urgentziako ospitaleratzeen ehunekotan, ospitale horietako bakoitzean. Modalitate horretan, Santa Marina ospitalea nabarmentzen da %91 ospitaleratzerekin, ospitale pribatuekin alderatuta, azken horietan ospitaleratze guztiak programatuak izaten baitira. Datu hori antolakuntza-ereduetan dagoen heterogeneotasun handiari zor zaio, edo ospitale-talde horren kasuistikari, eta hori sakontzea komeniko litzateke (21. taula).

Alta-motari dagokionez, ospitale publikoetan, alden % 72 dira etxera bidaltzen direnak, pribatuetan, alden % 57. Bestalde heriotzen ehunekoa oso ezbedina da leku batetik bestera. Datu horiek islatzen dute zentroetan artatutako kasuistikaren heterogeneotasuna. 22. taulan xehatu da gainerakoaren destinoa.

23. taulan, altak diagnostiko-taldearen eta sexuaren arabera azaltzen dira. Bi sexuak batera hartuta, bi multzo ohikoenak honako hauek dira: "V kodea"n (001-999 diagnosi-kategoria sailkatu ezin diren arazo edo zaintza jakin batzuk sailkatzeko erabiltzen direnak) sartutako diagnostiko edo arazoekin zerikusia dutenak eta arnas aparatuko gaixotasunak. Termino erlatiboetan hitz eginez, emakumeetan gehiago azaltzen da "V kodea", gizonezkoetan, berriz, arnas aparatuko gaixotasunak gehiago.

Diagnostiko-taldearen eta lurralde historikoen arabera aldei dagokienez (24. taula), termino erlatiboetan hitz eginda, alde nabarmenak daude hainbat diagnostiko-taldetan. Alde horiek egiaztatzea komeniko litzateke, jakiteko, lurraldeen arteko ospitalizazio-eredu desberdinek eragindakoak diren, edo lurraldeek baliabideetan dituzten desberdintasunagatik den, edo soilik, kodetze-irizpideetan dauden aldeak sortutakoak ote diren.

25. taulan, 25 diagnostiko ohikoenak azaltzan dira, sexuaren arabera eta egonaldi ertain-luzeko ospitale publiko eta pribatuetakoak, diagnostiko nagusiaren lehenengo hiru digituak erabilita. "Errehabilitazio-prozedurak egin beharreko zainketak" eta "gaixondoa" dira ospitalizatzeko bi kausa nagusiak emakumezkoetan, eta "errehabilitazio-prozedurak egin beharreko zainketak" eta bronkitis kronikoa, berriz, gizonezkoetan. "Errehabilitazio-prozedurak egin beharreko zainketak" dira batez besteko egonaldi luzeenen kausa nagusia ere.

## LABURPENA

- 2010ean, EAEko ospitale publiko nahiz pribatuetan aitortutako altak 2009koak baino %0,8 gehiago izan dira. Alabaina, ohiko ospitalizazio kopurua %0,6 jaitsi da.
- 2009arekin alderatuta, egondaldia 2,2 egun jaitsi dela ikusi da (hots, %3ko jaitsiera) Osakidetza-akutuen ospitale guztiak kontuan hartuta.
- Bihotz-gutxiegitasuna da ohiko ospitalizazioko kausa nagusia, akutuen ospitale publikoetan. Akutuen ospitale pribatuetan, berriz, belauneko barne-trastornoa da kausa ohikoena.
- Ohiko ospitalizazioko prozedurarik ohikoena, akutuen ospitale publikoetan eta emakumeen artean, "eskuz lagundutako beste erditze bat" da (11.946 alta), eta gizonezkoetan, berriz, koronarioetako angioplastia (1.525). Ospitale pribatuetan ere "eskuz lagundutako beste erditze bat" da ohikoena emakumeen artean (933 alta), baina, gizonezkoetan, belauneko artroskopia da ohikoena (1.458).
- Kirurgia handi ambulatorko prozedura ohikoenak "kristalinoko ebakuntzak" dira, bai bi sexuen artean, bai ospitale publiko nahiz pribatuetan.
- Funtseko desberdintasunak ikusi dira diagnostikoaren eta lurralde historikoaren arabera banatutako aldetan, sakontzea komeni direnak, baloratzeko, ea ospitalizazio-modu desberdinagatik diren, edo lurraldeen arteko baliabide-desberdintasunagatik diren, edo beste kausaren batengatik (kodifikatzeko desberdintasunak...) diren.
- Funtseko desberdintasunak ikusi dira batez besteko egonaldian ere, diagnostiko eta prozedura batzuetan, ospitale publiko eta pribatuen artean. Gertakari horrek emaitzak doitzeko komenentzia azaltzen du, kasuen konplexutasunak emaitza horietan nola eragiten duen baloratzeko.

## BIBLIOGRAFIA

1. 303/1992 Dekretua, azaroaren 3koa, ospitaleetako alden gutxieneko oinarriko datu-bilduma arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako alden erregistroa sortzeko dena (EHAA, 1992/12/1).
2. Manual Técnico del Registro del CMBD del alta hospitalaria de Euskadi, versión 2, 1996. Departamento de Sanidad, Gobierno Vasco.
3. Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena, 9. berrikuspena, Aldaketa Klinikoa (GNS-9-AK), 6. argitalpena. Osasun eta Kontsumo Ministerioa, 2008
4. EAE-ko Ospitaleetako alden erregistrokoaren txostena, 2009. [http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-pkpubl01/eu/contenidos/informacion/estado\\_salud/eu\\_5463/adjuntos/Informe%20FINAL%20cmbd%202009%20EUSKERA.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-pkpubl01/eu/contenidos/informacion/estado_salud/eu_5463/adjuntos/Informe%20FINAL%20cmbd%202009%20EUSKERA.pdf)

## Eskerronak

Ospitaleetako aldei buruzko DGOB datuak jasotzen laguntzen duten profesional guztiei, informazioa ahalik eta kalitate onenekoa izateko egiten duten ahaleginagatik.

1. taula. EAEko alta guztiak, ospitale-motaren eta asistentzia-motaren arabera, 2010.

Ospitale-mota	Asistentzia-mota				Guztira	
	Ohiko ospitalizazioa*		Programatutako prozesu ambulatorioak**			
	Kasu-kop.	%	Kasu-kop.	%	Kasu-kop.	%
Akutuen ospitale publikoak	187.333	76,6	48.019	57,1	235.352	71,6
Akutuen ospitale pribatuak	46.776	19,1	36.067	42,9	82.843	25,2
Egonaldi ertain-luzeko ospitale publikoak	9.018	3,7	15	0,0	9.033	2,7
Egonaldi ertain-luzeko ospitale pribatuak	1.275	0,5	4	0,0	1.279	0,4
Guztira	244.402	100	84.105	100	328.507	100

\* Kategoria honetan 3.590 kasu sartzen dira ospitaleratzea urgentea izan eta egonaldia zero izan dutenak

\*\* Kategoria honetan, egonaldia zero izan duten aitortutako prozesu programatu guztiak sartzen dira.

2. taula. EAEko alta guztiak, ospitale-motaren eta asistentzia-motaren arabera eta EAEn bizi diren edo ez kontuan hartuta, 2010.

Ospitale-mota	EAEn bizi da					
	Bai			Ez		
	Asistentzia-mota			Asistentzia-mota		
	Ohiko ospitalizazioa	Programatutako prozesu ambulatorioak	Guztira	Ohiko ospitalizazioa	Programatutako prozesu ambulatorioak	Guztira
Akutuen ospitale publikoak	183.387	47.346	230.733	3.946	673	4.619
Akutuen ospitale pribatuak	44.178	34.715	78.893	2.598	1.352	3.950
Egonaldi ertain-luzeko ospitale publikoak	8.882	14	8.896	136	1	137
Egonaldi ertain-luzeko ospitale pribatuak	1.272	4	1.276	3	0	3
Guztira	237.719	82.079	319.798	6.683	2.026	8.709

Iturria: Ospitaleetako Alteen Erregistroa (DGOB)



3. taula. EAEn bizi direnen diagnostiko eta prozeduren batez bestekoa, ohiko ospitalizazioetan, 2010.

Ospitale-mota/Ospitalea		Alta-kop.	Diagnos-tikoaren batez bestekoa	Diag-nostiko nagusia gabe	Proz. ez kirug. batez bestek.	Proz. kirurgi-kodun altak	Prozed. kirug. batez besteko.
Akutuen ospitale publikoak	Santiago	11.089	3,4	0	0,4	4.157	1,6
	Txagorritxu	19.694	4,6	0	0,8	8.595	1,6
	Bidasoa	4.564	4,4	0	0,3	1.565	1,3
	Debagoiena	3.764	3,2	2	0,1	1.730	1,2
	Donostia	42.768	4,9	0	0,6	18.949	1,6
	Zumarraga	6.613	3,2	0	0,1	2.934	1,1
	Mendaro	5.224	5,5	0	0,2	2.035	1,3
	Gurutzeta	36.813	4,7	0	1,1	19.889	1,7
	San Eloy	4.481	4,1	0	0,3	2.181	1,4
	Basurtu	30.329	4,3	0	0,5	12.398	1,5
	Galdakao	18.048	4,0	0	1,0	6.723	1,5
	Guztira	183.387	<b>4,4</b>	2	<b>0,7</b>	81.156	<b>1,5</b>
Akutuen ospitale pribatuak	La Esperanza	1.152	1,2	0	-	1.152	1,6
	San José pol.	1.756	1,9	14	-	1.433	1,6
	V. Pilar	1.681	1,4	0	-	1.267	1,4
	Onkologikoa	2.698	2,7	0	-	2.497	1,7
	Mutualia-Pakea	457	1,8	0	-	414	2,8
	Gipuzkoako polik.	7.677	3,6	13	-	7.298	2,2
	Quirón-Donostia	1.572	1,9	0	-	1.401	1,5
	Asunción	3.357	2,6	0	-	1.333	1,2
	Indautxu	936	1,0	3	-	337	1,0
	Vic. San Sebastián	8.017	2,7	0	-	4.419	1,7
	Andra Mari Zuria	4.253	1,2	0	-	3.329	1,0
	Gurutze Gorria-Bilbao	2.939	1,0	0	-	2.916	1,0
	Mutualia-Ercilla	709	2,9	0	-	590	1,8
	Bilboko erietxea	1.648	1,0	0	-	1.509	1,1
	Guimón	1.652	1,0	0	-	1.652	1,0
	Intermutual	1.185	1,1	0	-	951	1,0
	SJ de Dios-Santurtzi	1.813	1,6	0	-	1.702	1,0
	Quirón-Bizkaia	676	1,8	0	-	660	1,3
Guztira	44.178	<b>2,2</b>	30	-	34.860	<b>1,5</b>	
Egonaldi ertain-luzeko ospitale publikoak	Leza	392	2,7	0	-	0	0
	Amara	1.411	1-	0	0,7	62	1,2
	Santa Marina	5.008	8,7	0	0,8	0	0
	Gorliz	2.071	6,2	0	2,1	0	0
	Guztira	8.882	<b>8,1</b>	0	1,1	62	1,2
Egonaldi ertain-luzeko ospitale pribatuak	Araba klinika	169	1,9	0	-	0	0
	Matía	1.103	5,4	0	-	0	0
	Guztira	1.272	<b>4,9</b>	0	-	0	0
GUZTIRA	237.719	4,2	32	0,5	116.078	1,5	

Iturria: Ospitaleetako Alten Erregistroa (DGOB)

4. taula. EAEn bizi direnen batez besteko adina eta batez besteko egonaldia ohiko ospitalizazioetan, akutuen ospitale publiko eta pribatuetan, ospitale-motaren eta ospitalen arabera, 2010.

Ospitale-mota/Ospitalea		Alta-kop.	Batez beste -ko adina	Batez besteko egonaldia
Akutuen ospitale publikoak	Santiago	11.089	62,7	6,6
	Txagorritxu	19.694	54,3	6,1
	Bidasoa	4.564	64,0	5,9
	Debagoiena	3.764	55,0	4,6
	Donostia	42.768	54,7	6,9
	Zumarraga	6.613	54,4	4,8
	Mendaro	5.224	61,5	6,0
	Gurutzeta	36.813	50,2	7,2
	San Eloy	4.481	67,4	6,2
	Basurtu	30.329	57,2	6,4
	Galdakao	18.048	63,1	5,7
	Guztira	183.387	<b>56,2</b>	<b>6,5</b>
Akutuen ospitale pribatuak	La Esperanza	1.152	49,0	2,0
	San José pol.	1.756	55,4	3,8
	V. Pilar	1.681	52,6	3,2
	Onkologikoa	2.698	60,8	5,8
	Mutualia-Pakea	457	54,1	4,5
	Gipuzkoako polik.	7.677	55,5	3,6
	Quirón-Donostia	1.572	45,5	2,4
	Asunción	3.357	65,6	6,6
	Indautxu	936	55,9	6,9
	Vic. San Sebastián	8.017	60,5	4,5
	Andra Mari Zuria	4.253	56,4	3,6
	Gurutze Gorria-Bilbao	2.939	57,2	2,5
	Mutualia-Ercilla	709	44,6	2,2
	Bilboko erietxea	1.648	55,0	2,8
	Guimón	1.652	58,3	2,7
	Intermutual	1.185	42,2	2,9
	S. Juan Dios-Santurtzi	1.813	51,4	6,8
	Quirón-Bizkaia	676	36,8	3,2
	Guztira	44.178	<b>56,2</b>	<b>4,1</b>
	<b>GUZTIRA</b>	227.565	56,2	6,0

Iturria: Ospitaleetako Alteen Erregistroa (DGOB)

5. taula. EAEn bizi direnen ospitaleratze-motak ohiko ospitalizazioetan, akutuen ospitale publikoetan eta pribatuetan, 2010.

Ospitaleratze -mota	Ohiko ospitalizazioa			
	Akutuen ospitale publikoak		Akutuen ospitale pribatuak	
	Kop.	%	Kop.	%
Urgentea	129.579	70,7	10.226	23,1
Programatua	53.808	29,3	33.952	76,9
Guztira	183.387	100	44.178	100

6. taula. EAEn bizi direnen alta-motak ohiko ospitalizazioetan, akutuen ospitale publikoetan eta pribatuetan, 2010.

Alta-mota	Ohiko ospitalizazioa			
	Akutuen ospitale publikoak		Akutuen ospitale pribatuak	
	Kop.	%	Kop.	%
Ohiko bizitokira	170.102	92,8	42.271	95,7
Akutuen ospitalera lekualdatu	2.728	1,5	579	1,3
Egonaldi ertain eta luzeko ospitalera lekualdatu	2.477	1,4	176	0,4
Gizarte-egoitzara lekualdatu	381	0,2	17	-
Heriotza	6.284	3,4	929	2,1
Borondatezko alta	565	0,3	9	-
Beste kausa batzuk	850	0,5	197	0,4
Guztira	183.387	100	44.178	100

Iturria: Ospitaleetako Alten Erregistroa (DGOB)

7. taula. Ohiko ospitalizazioetako alta-zerbitzuak, akutuen ospitale publikoetan eta pribatuetan, EAEn bizi direnen artean, 2010.

Alta eman duen zerbitzua	Guztira		Akutuen ospitale publikoak		Akutuen ospitale pribatuak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Obstetrizia eta ginekologia	31.154	13,7	27.002	14,7	4.152	9,4
Traumatologia eta ortopedia-kirurgia	30.437	13,4	18.385	1-	12.052	27,3
Barne-medikuntza	29.165	12,8	24.281	13,2	4.884	11,1
Kirurgia orokorra eta digestio-aparatukoa	28.209	12,4	20.528	11,2	7.681	17,4
Kardiologia	15.562	6,8	14.201	7,7	1.361	3,1
Urologia	11.544	5,1	8.836	4,8	2.708	6,1
Pneumologia	11.499	5,1	10.992	6,0	507	1,1
Digestio-zerbitzua	9.428	4,1	9.369	5,1	59	0,1
Pediatría	7.998	3,5	7.861	4,3	137	0,3
Neurologia	7.341	3,2	7.007	3,8	334	0,8
Onkologia medikoa	6.472	2,8	4.712	2,6	1.760	4,0
Otorrinolaringologia	5.861	2,6	4.226	2,3	1.635	3,7
Hodietako kirurgia	5.173	2,3	3.678	2,0	1.495	3,4
Psikiatria	4.496	2,0	4.314	2,4	182	0,4
Kirurgia Plastikoa	3.654	1,6	1.624	0,9	2.030	4,6
Neurokirurgia	3.157	1,4	2.978	1,6	179	0,4
Hematologia klinikoa	2.285	1,0	2.272	1,2	13	-
Nefrologia	2.076	0,9	1.945	1,1	131	0,3
Medikuntza intentsiboa	1.703	0,7	1.671	0,9	32	0,1
Kirurgia kardiobaskularra	1.583	0,7	731	0,4	852	1,9
Toraxeko kirurgia	1.377	0,6	1.177	0,6	200	0,5
Kirurgia pediatrikoa	1.172	0,5	1.151	0,6	21	-
Aurpegi-masailtako kirurgia	1.096	0,5	908	0,5	188	0,4
Endokrinologia	907	0,4	901	0,5	6	-
Oftalmologia	743	0,3	544	0,3	199	0,5
Onkologia erradioterapikoa	709	0,3	288	0,2	421	1,0
Erreumatologia	686	0,3	686	0,4	0	0
Erradiologia interbentzionista	506	0,2	498	0,3	8	-
Anestesia eta bizkortzea	289	0,1	271	0,1	18	-
Zainketa aringarriak eta minaren unitatea	150	0,1	98	0,1	52	0,1
Alergologia	123	0,1	28	-	95	0,2
Errehabilitazioa	76	-	47	-	29	0,1
Dermatologia	63	-	34	-	29	0,1
Beste zenbait	815	0,4	146	0,1	669	1,5
Ezezaguna	59	-	0	0	59	0,1
Guztira	227.568	100	183.390	100	44.178	100

Iturria: Ospitaleetako Alten Erregistroa (DGOB)

8. taula. EAEn bizi direnen ohiko ospitalizazioko altak, akutuen ospitale publikoetan eta pribatuetan, adinaren eta sexuaren arabera, 2010.

Adin-taldea	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
0-14	6.739	6,0	4.971	4,3	11.710	5,1
15-29	6.398	5,7	10.268	8,9	16.666	7,3
30-44	13.687	12,3	30.181	26,0	43.868	19,3
45-59	22.923	20,5	17.042	14,7	39.965	17,6
60-74	32.201	28,9	21.716	18,7	53.917	23,7
75-89	27.939	25,0	27.710	23,9	55.649	24,5
>=90	1.710	1,5	4.079	3,5	5.789	2,5
Guztira	111.597	100	115.967	100	227.564	100

Iturria: Ospitaleetako Altan Erregistroa (DGOB)

9a taula. EAEn bizi direnen ohiko ospitalizazioko altak, akutuen ospitale publikoetan, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera, 2010.

Lurralde Historikoa	Guztira				Gizonezkoak				Emakumezkoak			
	Alta-kop.	Batez beste. adina	Berriz ospitaleratzeko arrazoia	Tasa*	Alta-kop.	Batez beste. adina	Berriz ospitaleratzeko arrazoia	Tasa*	Alta-kop.	Batez beste. adina	Berriz ospitaleratzeko arrazoia	Tasa*
Araba	32.041	56,6	1,29	99,7	15.841	58,8	1,36	98,7	16.200	54,5	1,23	100,7
Bizkaia	88.670	56,2	1,26	77,2	42.910	58,2	1,32	77,3	45.760	54,4	1,20	77,1
Gipuzkoa	62.676	55,9	1,27	89,9	30.066	57,9	1,33	87,8	32.610	54,1	1,21	91,9
EAE	183.387	56,2	1,27	84,6	88.817	58,2	1,33	84,0	94.570	54,3	1,21	85,3

\* Erabilera-tasa, 1.000 biztanleko

9b taula. EAEn bizi direnen ohiko ospitalizazioko altak, akutuen ospitale pribatuetan, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera, 2010.

Lurralde Historikoa	Guztira				Gizonezkoak				Emakumezkoak			
	Alta-kop.	Batez beste. adina	Berriz ospitaleratzeko arrazoia	Tasa*	Alta-kop.	Batez beste. adina	Berriz ospitaleratzeko arrazoia	Tasa*	Alta-kop.	Batez beste. adina	Berriz ospitaleratzeko arrazoia	Tasa*
Araba	3.392	51,9	1,11	10,6	1.874	50,3	1,12	11,7	1.518	54,0	1,10	9,4
Bizkaia	23.204	56,2	1,14	20,2	11.396	56,5	1,16	20,5	11.808	55,9	1,12	19,9
Gipuzkoa	17.582	56,9	1,18	25,2	9.510	57,5	1,19	27,8	8.072	56,3	1,16	22,7
EAE	44.178	56,2	1,15	20,4	22.780	56,4	1,17	21,5	21.398	55,9	1,14	19,3

\* Erabilera-tasa, 1.000 biztanleko

10. taula: EAEn bizi direnen ohiko ospitalizazioko altak, akutuen ospitale publiko eta pribatuetan, diagnostiko-taldearen eta sexuaren arabera, 2010.

GNS-9-AK Diagnostiko-taldea	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaixotasun infektioso eta parasitarioak	1.980	1,8	1.475	1,3	3.455	1,5
Neoplasiak	12.104	10,8	10.020	8,6	22.124	9,7
Gaixotasun endokrino, metaboliko eta immunitarioak	1.611	1,4	2.226	1,9	3.837	1,7
Odoleko eta organo odol-sortzaileetako gaixotasunak	1.276	1,1	1.370	1,2	2.646	1,2
Buru-trastornoak	2.541	2,3	2.061	1,8	4.602	2,0
Nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunak	3.265	2,9	3.244	2,8	6.509	2,9
Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak	18.319	16,4	13.036	11,2	31.355	13,8
Arnas aparatuko gaixotasunak	13.423	12,0	9.051	7,8	22.474	9,9
Digestio-aparatuko gaixotasunak	16.808	15,1	12.314	10,6	29.122	12,8
Aparatu geniturinarioko gaixotasunak	6.464	5,8	7.083	6,1	13.547	6,0
Haurdunaldiko, erditzeko eta erdiberriaroko konplikazioak	1	-	23.867	20,6	23.868	10,5
Larruazaleko eta azalpeko ehuneko gaixotasunak	1.369	1,2	1.047	0,9	2.416	1,1
Sistema muskulu-eskeletikoko eta ehun konektiboetako gaixotasunak	9.522	8,5	9.588	8,3	19.110	8,4
Sortzetiko anomaliak	692	0,6	608	0,5	1.300	0,6
Jaiotze inguruko patologia	1.129	1,0	1.001	0,9	2.130	0,9
Gaizki definitutako sintoma, seinale eta egoerak	6.801	6,1	5.422	4,7	12.223	5,4
Lesioak eta pozoitzeak	10.837	9,7	9.114	7,9	19.951	8,8
V kodea	3.439	3,1	3.425	3,0	6.864	3,0
Kodetu gabeak	16	-	16	-	32	-
Guztira	111.597	100	115.968	100	227.565	100

Iturria: Ospitaleetako Alten Erregistroa (DGOB)

11. taula. EAEn bizi direnen ohiko ospitalizazioko altak, akutuen ospitale publiko eta pribatuetan, diagnostiko-taldearen eta lurralde historikoaren arabera, 2010.

GNS-9-AK Diagnostiko-taldea	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaixotasun infektzioso eta parasitarioak	567	1,6	1.641	1,5	1.247	1,6
Neoplasiak	3.073	8,7	11.837	10,6	7.214	9,0
Gaixotasun endokrino, metaboliko eta inmunitarioak	593	1,7	1.743	1,6	1.501	1,9
Odoleko eta organo odol-sortzaileetako gaixotasunak	436	1,2	1.296	1,2	914	1,1
Buru-trastornoak	849	2,4	2.401	2,1	1.352	1,7
Nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunak	912	2,6	3.482	3,1	2.115	2,6
Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak	4.721	13,3	15.313	13,7	11.321	14,1
Arnas aparatuko gaixotasunak	3.934	11,1	9.803	8,8	8.737	10,9
Digestio-aparatuko gaixotasunak	4.347	12,3	15.058	13,5	9.717	12,1
Aparatu genitourinarioko gaixotasunak	2.190	6,2	6.426	5,7	4.931	6,1
Haurdunaldiko, erditzeko eta erdiberriaroko konplikazioak	3.550	1-	11.739	10,5	8.579	10,7
